



Baliozko proposamena

Proiektu edo zerbitzu hau, gazteei bideratutako aplikazioa da. Honek, gazteei modu simple baten erreztasunak emango die, lan puntualak aurkitzeko. Adibidez, denbora murriztuetan, hau da, ikasleei hauen baldintzetara egokitzen diren lanbideak aurkitzen laguntzen dien aplikazioa.



Gaur egun nahiko zaila da lana aurkitzea herrian edo eskualdean, enpresek ez dutelako euren beharrak adierazten eta ondorioz, gazte asko ibiltzen dira lan bila. Gu, gazteok joan behar izaten gara beraiei galdezka ea langile falta daukaten edo langile gehiago behar duten. Gazte askok, nahiz eta urtean zehar beraien ikasketa prozesuak aurrera eraman, prest egoten dira lanaldi murriztuetan lan egiteko, eta gure helburua erreztazunak ematean datza.

Askotan gazteok lana aurkitzea dugu helburu, baina zaila iruditzen zaigu guk behar dugun baldintzetara egokitzen den lan bat aurkitzea. Aplikazio honen bidez gazteei lana aurkitzen lagundu nahi diegu.